

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **24/2021 Foru Araua, azaroaren 17koa, ingurumenarekin loturiko zerga neurriei eta beste zerga neurri batzuei buruz**

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko azaroaren 17an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

24/2021 Foru Araua, azaroaren 17koa, ingurumenarekin loturiko zerga neurriei eta beste zerga neurri batzuei buruz.

#### ZIOEN ADIERAZPENA

Foru arau honek ingurumenarekin eta garapen jasangarriarekin loturiko jarduerak sustatzeko zerga neurriak hartzea du xede, beste zerga neurri batzuek gain.

Ingurumenari dagokionez, enplegatzailearen jabetzako hiriko bizikleten erabilera sustatzen da enplegatuek beren ohiko bizilekutik lantokira eta alderantziz egin beharreko joan-etorrietarako; horrela, baldintza jakin batzuk betez gero, bizikleta horiek erabiltzea ez da gauzazko lan etekintzat hartuko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan.

Arau espezifikoa sartzen dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan, bateriako ibilgailu elektrikoekin eta bateria hedatuko ibilgailu elektrikoekin lotutako gastu jakin batzuen arloan.

Beste alde batetik, sozietateen gaineko zergan bi kenkari berri sortu dira: bata, langileak bere ohiko bizilekutik lantokira eta alderantziz joateko bizikletak erosteari dagokiona, eta bestea, ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuetan inbertitzeari. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez, kenkari berri bat sortu da, ohiko etxebizitza energiaz hornitzeko eguzki energia fotovoltaikoa sortzeko instalazioak erosteko kooperatibei egin beharreko ekarpenarekin lotuta.

Ingurumenaren onerako diren teknologia garbietako inbertsioei dagokionez, egungo kenkariaren muga handitu da, ehuneko 35etik ehuneko 50era.

Beste zerga neurri batzuei dagokionez, aldaketak egin dira 2020ko ekainean izandako kazkar erauntsiaren ondorioz nekazaritza aseguruaren kontratuen bidez nekazaritza ekoizpeneko galeren konpentsazioarekin lotuta jasotako zenbatekoen aldi baterako egozketa dela eta.

Azkenik, modu jasangarrian kudeatutako baso finken ustiapenarekin lotutako neurriak ezartzen dira.

### I. TITULUA. INGURUMENAREKIN LOTUTAKO ZERGA NEURRIAK

#### **1. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan honako aldaketa hauek egiten dira (2021eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 9. artikulua 19. zenbakiari bigarren paragrafoa eransten zaio. Honela geratzen da:

“Modu jasangarrian kudeatutako baso finkek ustiatzen dituztenei emandako dirulaguntzak, basogintzaren arloan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailak ezarritako arauen arabera. Paragrafo honetan ezarritakoa aplikatzeko, beharrezkoa izango da Arabako Foru Aldundian basogintzaren arloan eskumena duen sailak horri buruz emandako ziurtagiria edukitzea”.

Bi. 17. artikulua 2. apartatuari i) letra gehitzen zaio. Honela geratuko da idatzita:

“i) Enplegatzailearen jabetzako hiriko bizikletak erabiltzea entitateko langileek beren ohiko bizilekutik lantokira edo alderantziz egin beharreko joan-etorrietarako. Ondorio horietarako, motor elektriko lagundutako bizikleta pedaldunak sartzen dira, Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urtarrilaren 15eko 168/2013 (EB) Erregelamenduan jasotako definizioaren arabera”

Hiru. 25. artikuluko 6. apartatua 7. apartatua izango da aurrerantzean, eta 25. artikuluari 6. apartatua gehitzen zaio. Hona testua:

“6. Basogintzako jarduera ekonomiko bat garatzen duten zergadunek ehuneko 10eko murziketa aplikatu ahal izango diote haren etekin garbi positiboari, behar den kasuetan artikulua honetako 4. eta 5. apartatuetan xedatutakoa aplikatu ondoren.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatzeko, beharrezkoa izango da Arabako Foru Aldundian basogintzaren arloan eskumena duen sailak arau ezartzen dituen baso kudeaketa jasangarri-rako konpromisoak betetzea. Konpromiso horiek betetzen direla egiaztatzeko, basogintzaren arloan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailak horri buruz emandako ziurtagiria aurkeztu beharko du”

Lau. Aldatu egiten dira 27. artikulua bosgarren erregelaren Hiru apartatuaren a) eta b) letrak, eta honela geratzen dira idatzita:

“a) Errentamendu, lagapen edo balio galera gisa:

– Zenbateko hauetatik txikiena: 5.000 euro edo zergadunak erabilitako amortizazio ehuneko bider 25.000 euro eginda ateratzen den zenbatekoa, zenbatekoa baino gutxiago bada eta ondare elementua amortizatzen bada.

– Bateriako ibilgailu elektrikoak (BEV) edo bateria hedatuko ibilgailu elektrikoak (E-REV) badira, lehen adierazitakoaren ordez, zenbateko hauetatik txikiena aplikatuko da: 7.000 euro edo zergadunak erabilitako amortizazio ehuneko bider 35.000 euro eginda ateratzen den zenbatekoa, zenbatekoa hura txikiagoa bada eta ondare elementua amortizatzen bada.

b) Aipatutako ibilgailuak erostearen ondoriozko finantza gastuei dagokienez:

– Ibilgailuaren eskuraketa prezioa 25.000 euro baino gehiago izanez gero, kopuru horrek osatzen duen zati proportzionala ibilgailuaren eskuraketaren prezioarekiko.

– Bateriako ibilgailu elektrikoak (BEV) edo bateria hedatuko ibilgailu elektrikoak (E-REV) badira, lehen adierazitakoaren ordez, hau aplikatuko da: ibilgailuaren eskuraketa prezioa 35.000 euro baino gehiago denean, kopuru horrek osatzen duen zati proportzionala ibilgailuaren eskuraketaren prezioarekiko”

Bost. 93 bis artikulua gehitzen da; hona testua:

“93 bis artikulua. Kenkaria, ohiko etxebizitza energiaz hornitzeko eguzki energia fotovoltaikoa sortzeko instalazioak erosteko kooperatibei egin beharreko ekarpena dela eta.

1. Ohiko bizilekua Arabako 4.000 biztanle baino gutxiago dituen udalerrri batean duten zergadunek energia jasangarria sortzeko kooperatibei emandako zenbatekoen ehuneko 10 kendu ahal izango dute, artikulua honetan adierazitako moduan.

Ondorio horietarako, nahitaezkoa izango da familia unitateak udalerrri horretan kokatuta izatea bere interesgune nagusia, hau da, bertan, besteak beste, harreman pertsonalak, sozialak, sanitarioak eta hezkuntzakoak egotea.

2. Kenkari horren oinarria izango dira kooperatiba horiei beren ohiko etxebizitza energiaz hornitzeko eguzki energia fotovoltaikoa ekoizteko instalazioak erosteko emandako zenbatekoak.

Jabetza horizontaleko erregimeneko etxebizitzetan instalazio horiek modu partekatuan egiten badira, eta instalazio horiek legez ezarritako baldintzak betetzen badituzte, kenkari hori jabe bakoitzak banaka aplikatu ahal izango du erkidegoan dagokion partaidetza koefizientearen arabera, betiere ezarritako gainerako betekizunak betetzen badituzte.

Kenkariaren oinarriari kenduko zaio eguzki energia fotovoltaikoa ekoizteko instalazio horiek erosteko zergadunak, hala badagokio, zuzenean edo zeharka jaso dituen dirulaguntzen zenbatekoa.

Kenkari horrek ez ditu inola ere ohiko etxebizitzaren edo jabetza horizontaleko erregimeneko etxebizitza guztien energia kontsumoak eragindako gastuak hartuko.

3. Kenkariaren gehieneko oinarria 3.000 euro izango da. Oinarri hori bera ere ekarpen kengarriaren gehieneko mugatzat hartuko da etxebizitza bakoitzerako.

4. Aurreko apartatuan aipatutako 3.000 euroko kenkari oinarriaren muga etxebizitza bereko zergadun guztiei aplikatzen zaie.

Ohiko etxebizitza berari dagokionez, kenkari hau aplikatzeko eskubidea duten zergadun bat baino gehiago badago, 3.000 euroko muga hori haien artean banatuko da, etxebizitzaren gainean dagokien jabetza ehunekoaren arabera.

5. Kuota nahikoa ez izateagatik kentzen ez diren kopuruak hurrengo jarraiko lau zergaldietan aplikatu ahal izango dira, aipatutako mugei eutsiz.

6. Kenkari hori aplikatzeko, beharrezkoa da eguzki energia fotovoltaikoa ekoizteko instalazioek legezko eskakizun guztiak betetzea”

## **2. artikulua. Sozietateen gaineko zerga**

Sozietateen gaineko zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan aldaketa hauek egiten dira (2021eko urtarrilaren 1az geroztik hasitako zergaldietan sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 31. artikulua 3. apartatuaren a) letrari bi paragrafo berri erantsen zaizkio, seigarrena eta zazpigarrena hain zuzen ere; hona testua:

“Bateriako ibilgailu elektrikoak (BEV) edo bateria hedatuko ibilgailu elektrikoak (E-REV) badira, lehen adierazitakoaren orde, eta beti ere zergadunak modu sinesgarrian frogatzen badu ibilgailua jarduera ekonomiko bat egiteko baino ez dela erabiltzen, letra honetan aipatutako gastu guztiak izango dira kengarriak, eta kenkariaren gehieneko muga honako hauek izango dira: batetik, 7.000 euro edo zergadunak erabilitako amortizazio ehuneko bider 35.000 euro eginda ateratzen den zenbatekoa, zenbateko hori txikiagoa bada eta amortizazioa ondare elementu baten errentamenduagatik, lagapenagatik edo balio galeragatik aplikatu bada; eta bestetik, 6.000 euro, haren erabilerarekin zerikusia duten gainerako kontzeptuengatik.

Aurreko paragrafoan azaldu diren kasuetan, aipatutako ibilgailuen erosketarekin zerikusia duten finantza gastuengatik kenkariaren muga izango da 35.000 euroko diru kopuruak osatzen zuen zati proportzionala ibilgailuaren erosketaren prezioarekiko, prezioa 35.000 eurotik gorakoa denean.”

Bi. 59. artikulua 3. apartatuko lehen paragrafoa aldatu da. Aurrerantzean honela idatzita egongo da:

“3. Zerga oinarri positiboak lortzen dituzten zergadunen kuota efektiboa zehazteko kuota likidoaren gaineko kenkariak aplikatzeak, foru arau honen 62.etik 64.era bitarteko artikuluetan eta 65. artikulua 1. apartatuan aipatzen diren kenkariak izan ezik, ezin du ekarri kuota efektiboa, oro har, zerga oinarriaren zenbatekoaren ehuneko 17 baino txikiagoa izatea. Foru arau honen 56. artikulua 1. apartatuko c) letran aipatzen dituen entitateen kasuan, ehuneko hori ehuneko 13koa izango da”

Hiru. 61.bis artikulua gehitzen da; hona testua:

“61 bis artikulua. Hiriko bizikletan inbertitzearen kenkaria.

Bat. Entitateko langileek beren ohiko bizilekutik lantokira eta alderantziz egin beharreko joan-etorrietarako hiriko bizikletetan inbertitzeak, ehuneko 10eko kenkaria aplikatzeko eskubidea sortuko du.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, motor elektriko lagundutako bizikleta pedaldunak sartzeko, Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urtarrilaren 15eko 168/2013 (EB) Erregelamenduan jasotako definizioaren eta ezaugarrien arabera.

Bi. Honako hau izango da gehieneko kenkari oinarria aurreko apartatuan adierazitako bizikleta bakoitzagatik:

- Motor elektriko lagundutako bizikleta pedaldunak: 1.500 euro.
- Beste hiriko bizikleta mota bat: 500 euro.

Hiru. Kenkari horren guztizko oinarriak ezin izango du urteko 15.000 euroko muga gainditu, foru arau honen 13. artikuluan xedatutakoari jarraituz mikroenpresen eta enpresa txikien izaera duten enpresentzat, eta 20.000 euroko muga gainerako entitateen kasuan.

Lau. Artikulu honetan aurreikusitako kenkaria baliatzeko, egindako inbertsioak ibilgetuaren barruan kontabilizatu beharko dira, gainerako ondare elementuetatik bereizita eta hura identifikatzeko aukera ematen duen epigrafepean”.

Lau. Artikulu berri bat gehitzen da, 61 ter, honako idazkera honekin:

“61 ter artikulua. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuetan inbertitzearen kenkaria.

Bat. Elektrizitatea ibilgailu elektriko batera transferitzea ahalbidetzen duen potentzia normaleko edo potentzia handiko karga puntu bat (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko urriaren 22ko 2014/94/EB Zuzentarauan ezarritako definizioaren arabera) zerbitzuan jartzeak kuota likidoan ehuneko 15eko kenkaria egiteko eskubidea emango du, artikulu honetan ezarritako baldintzetan.

Bi. Hurrengo bosgarren apartatuan ezarritakoari kalterik egin gabe, kenkari horren oinarria izango da martxan jartzeko beharrezkoak diren obra zibiletan, instalazioetan, kableetan eta konexio puntuan egindako inbertsioaren zenbatekoa.

Hiru. Instalazioek BT-52 Jarraibide Tekniko Osagarria (JTO) onesten duen abenduaren 12ko 1053/2014 Errege Dekretuan ezarritakoa bete beharko dute.

Lau. Lehenengo apartatuan ezarritako kenkariaren ehunekoa honako kasu hauetan handitu ahal izango da:

1. Kargatzeko puntua sarbide publikoko toki batean badago, kenkariaren ehunekoa bost puntu handituko da.
2. Karga puntuaren potentzia 7,4 kW edo handiagoa eta 22 kW edo txikiagoa bada, kenkariaren ehunekoa bi puntu handituko da.
3. Karga puntuaren potentzia 22 kW baino handiagoa eta 50 kW baino txikiagoa bada, kenkariaren ehunekoa bost puntu handituko da.

Aurreko 1. zenbakian xedatutako igoera 2. zenbakian edo 3. zenbakian zehaztutakora metatu ahal izango da, kargatzeko puntuaren potentziaren arabera.

Bost. Nolanahi ere, kenkari horren oinarriak ezin izango ditu muga hauek gainditu:

1. Potentzia normaleko kargatzeko puntuetarako: 5.000 euro kargatzeko puntu bakoitzeko.
2. Potentzia handiko kargatzeko puntuetarako: 25.000 euro kargatzeko puntu bakoitzeko.

Sei. Artikulu honetan araututako kenketa ezin izango da 10.000 eurotik gorakoa izan urtean”.

Bost. Aldatu egiten da 67. artikuluan 1. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

“1. Kapitulu honetan xedatutako kenkariaren batura ezingo da izan, guztira, kuota likidoaren ehuneko 35 baino handiagoa, foru arau honen 62. artikulutik 64. artikulura bitartekoetan jasotako kenkariak izan ezik, horien muga kuota likidoaren ehuneko 70 izango baita, eta foru arau honen 65. artikuluan 1. apartatua araututakoa izan ezik, horren muga kuota likidoaren ehuneko 50 izango baita.

Araz finkatuko da aurreko paragrafoan aipatzen den mugen aplikazioaren ordena”.

**II. TITULUA. BESTE ZERGA NEURRI BATZUK****3. artikulua. Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga**

Aldatu egiten da Nekazaritzarekin lotutako Zerga Neurriei buruzko ekainaren 9ko 17/1997 Foru Arauaren 4. artikuluko 3. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

“3. Artikulu honen aurreko apartatuetan ezarritakoa gorabehera, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauaren 1. artikuluan aipatzen diren karga modalitateetatik salbuetsita egongo dira landa finkak eskuratzea, baldin eta jabe mugakideak eskuratzen baditu finkak elkartzeko.

Salbuespen hori aplikatzeko, eskuraketa eta elkartze eragiketa eskritura publikoan formalizatzea eskatuko da, eta eskritura horretan agerrarazi beharko da sortutako finka zatiezina dela bost urteko epean, ezinbestezko kasuetan izan ezik.

Baso finken kasuan, aurreko paragrafoan ezarritakoaz gain, eskatuko da finken elkartzeak kudeaketa jasangarriko irizpideei erantzutea, Arabako Foru Aldundian baso arloko eskumena duen sailak ezarritako arauekin bat etorritik. Kasu horietan, salbuespena aplikatzeko beharrezkoa izango da sail horrek emandako ziurtagiria edukitzea”

**4. artikulua. 2020ko ekaineko kazkabar erauntsiaren ondorioz nekazaritza aseguruaren bidez mahastietan izandako galeren konpentsazioen aldi baterako egozpena**

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek, baldin eta, 2020ko ekainean izandako kazkabar erauntsiaren ondorioz, nekazaritza aseguruaren kontratuen bidez mahastien galeren konpentsazioarekin zerikusia duten zenbatekoak jasotzen badituzte, jasotako zenbateko horiek guztiak 2020ko edo 2021eko zergaldiari egoztea aukeratu ahal izango dute, aplikatzen dituzten edo orain arte aplikatu izan dituzten diru sarreraren eta gastuen aldi baterako egozpenaren irizpidea alde batera utzita.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko, beharrezkoa izango da Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak, zeinak egokitzat jotzen dituen neurriak eta prozedurak hartuko baititu, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari berariaz jakinaraztea.

**AZKEN XEDAPENAK**

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Foru Arau hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, salbu ondorioak sortzen hasteko egun jakin bat esleituta duten arauak.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 17a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**